

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4494

EBAZPENA, 2025eko urriaren 6koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez aldatzen baita Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2024ko martxoaren 12ko Ebazpena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren deialdia ebatzen duena. Agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri ziren eta 2023ko deialdia egin zen.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeentzako 2023ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egin zen.

Bigarrena.– 2023ko abuztuaren 7an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea, eta 256 eskabide jaso ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan.

Hirugarrena.– Orduko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2024ko martxoaren 12ko Ebazpenaren bidez, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren deialdia ebatzi zen. Agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen 2023rako.

Laugarrena.– 2024ko apirilaren 12an, Tolosaldea Garatzen SAK orduko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2024ko martxoaren 12ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoan. Ebazpen horren bidez, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren deialdia ebatzi zen. Agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen, 2023rako.

Bosgarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez, baietsi egin zen Tolosaldea Garatzen SAK 005-EKZ-2023 espedientean Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2024ko martxoaren 12ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa. Ebazpen horren bidez, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren deialdia ebatzi zen (agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egin zen), eta, ondorioz, errekurtsogileari baimena eman zitzaion deskribapen-memoriaren bertsio zuzena aurkezteko, deialdia baloratzeko epaimahaiak azter zezan.

Seigarrena.– 2024ko maiatzaren 27an, Tolosaldea Garatzen SAK eskabidea zuzentzeko dokumentazioa aurkeztu zion Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari.

Zazpigarrena.– 2025eko ekainaren 13an, organo ebaluatzaileak dirulaguntza-eskaera aztertu eta ebaluatu zuen.

2025eko urriaren 24a, ostirala

ARRAZOIBIDE JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurkeztu beharreko eskabideak eta dokumentuek ez badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak, edo haien edukia ez bada nahikoa, 10 eguneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsak osatu edo zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Bigarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 17. artikulua arabera, agindu horretan araututako laguntzak, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroa eta Asteklima 2023 lerroa izan ezik, aldibereko eta norgehiagokako prozeduraren bidez eman behar dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikulua arabera.

Hirugarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 18.1 artikulua arabera, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak eskumena du onuradunak eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak behin betiko zehazteko.

Laugarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 18.2 artikulua zehaztuko du ebazpenean zer lehenetasun-ordenatan lagunduko diren diruz partzialki diruz lagundutako proiektuak, baldin eta, lehenik eta behin, aurrekontu-zuzkidura faltagatik diruz lagundu ez baziren.

Bosgarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 24.1 artikulua arautzen duenez, esleituriko dirulaguntzaren ordainketa modu honetan egingo da:

- a) Ordainketaren lehen aurrerakina, dirulaguntzaren % 33,33, dirulaguntza ebatzi ostean, Aginduaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- b) Ordainketaren bigarren aurrerakina, dirulaguntzaren % 33,33, 2024ko urriaren 31 baino lehen.
- c) Hirugarren ordainketa, % 33,34koa, 2025eko ekitaldian egingo da, 23.2 artikuluan ezarritako frogagiriak aurkeztu eta aztertu ondoren.

Ondorioz, igarotako 2023 eta 2024 ekitaldiei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko zaio onuradunari eta, azken ordainketa egingo da, 2025eko ekitaldiari dagokiona, diruz lagundutako erakundeak aurkeztu eta aztertu ondoren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 23. artikulua arabera egin beharko dituen justifikazio-agiriak.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 2023ko ekainaren 27ko Agindua, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekin-tzak egiten dituzten toki-erakundeentzako dirulaguntzak arautzen dituena eta 2023ko ekitaldirako deialdia egiten duena; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen

duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea orduko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2024ko martxoaren 12ko Ebazpena, zeinaren bidez ebatzi baitzen orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren deialdia, zeinaren bidez ezartzen baitira garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeak dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia egiten baita 2023ko deialdirako.

Bigarrena.– Tolosaldea Garatzen SAri hemeretzi mila eta berrehun euroko (19.200,00 euro) dirulaguntza ematea «Tolosaldeako eskolekin xahuketa elikadura murrizten» izeneko proiekturako. Dirulaguntza hori aldatzen den ebazpenaren I. eranskinean sartuko da eta ordainketak honela banakatuko dira:

a) 2023ko ekitaldia: 6.399,36 euro (sei mila hirurehun eta laurogeita hemeretzi euro eta hogeita hamasei zentimo) ordaintzea, esleituriko dirulaguntzaren % 33,33-ri dagokiona.

b) 2024ko ekitaldia: 6.399,36 euro (sei mila hirurehun eta laurogeita hemeretzi euro eta hogeita hamasei zentimo) ordaintzea, esleituriko dirulaguntzaren % 33,33-ri dagokiona.

c) 2025eko ekitaldia: 6.401,28 euro (sei mila laurehun eta bat euro eta hogeita zortzi zentimo) ordaintzea, esleituriko dirulaguntzaren % 33,34-ri dagokiona.

Hirugarrena.– Orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera ordainduko da dirulaguntza.

Laugarrena.– Tolosaldea Garatzen SAri 12.798,72 euro (hamabi mila zazpiehun eta laurogeita hemezortzi euro eta hirurogeita hamabi zentimo) ordaintzeko agintzea (2023ko eta 2024ko ekitaldiei dagokiena), ebazpen honen bidez emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekotik.

Dirulaguntzaren azken ordainketa egiteko (2025eko ekitaldiari dagokiona), onuradunak agiri bidez egiaztatu beharko du hori, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 23. eta 24. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Onuradunek, halaber, bete egin beharko dituzte agindu horren 20. artikuluan jasota dauden gainerako betebeharrak. Dirulaguntzen deialdi honetan, Ihobe SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak jardungo du erakunde laguntzaile gisa.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea agintzea, interesdunei jakinarazteko, orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 18.1 artikulua arabera, eta dirulaguntzak emateko prozedura orok bete behar duen publikotasun-printzipioa betetzeko.

Seigarrena.– Baldintza-agiriak banan-banan jakinarazteko agintzea, hala badagokio, diruz lagundutako proiektua egiteko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 27ko Aginduaren 19. artikulua arabera.

Zazpigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera, Administrazio Publikoen

2025eko urriaren 24a, ostirala

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 6a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

2025eko urriaren 24a, ostirala

ERANSKINA
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Ekonomia Zirkularreko Lerroa

Kodea	Eskaizalea	Proiektua	Puntuazioa	Aitorutako dirulaguntza (eurotan)
001-EKZ-2023	Peñacerradako Udala	Urizarharreko udalerrian amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda egitea.	69	28.500,00
002-EKZ-2023	Badesa SA	Hondakinak biltzeko zerbitzua digitalizatzea.	85,5	30.000,00
003-EKZ-2023	Zumarragako Udala	Amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda eta identifikazioa.	80,5	12.271,20
004-EKZ-2023	Badesa SA	Hondakin biltegiaren detektagailua duten edukiontzi marroietan itxitura elektronikoko instalatzeko proba pilotua.	55,5	16.000,00
005-EKZ-2023	Tolosaldea Garatzen SA	Tolosaldeko eskolekin xahuketa elikadura murrizten.	68	19.200
006-EKZ-2023	Debabarrenako Mankomunitatea	Debabarrenean berrerabiltzeko zentro bat sortzeko bideragarritasun-plana.	65	8.198,07
007-EKZ-2023	Debabarrenako Mankomunitatea	Debabarreneko hiru jantoki motatan (ospitalea, adinekoen egoitza eta eskola-zentroa) elikagaiak xahutzea saihesteko proiektu pilotua.	63	17.600,00
009-EKZ-2023	Nerbioi-Ibaizabalgi Zerbitzu Mankomunitatea	Amiantoa duten udal-instalazio eta -kokalekuen errolda eta Nerbioi-Ibaizabal merkataritza-gunean amiantoa kentzea planifikatuko duen egutegia.	74,5	12.000,00
010-EKZ-2023	Lemoako Udala	Lemoako zero zabor-hozkailu solidarioa.	60	4.477,63
011-EKZ-2023	Nerbioi-Ibaizabalgi Zerbitzu Mankomunitatea	Nerbioi-Ibaizabal eskualdean autokonpostajearen parte-hartzearen kontrola.	56,5	23.680,00
012-EKZ-2023	Lantaroneko Udala	Lantarongo Udalean amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda egitea.	71	26.362,50
013-EKZ-2023	Eibariko Udala	Berrerabili eta Berriz Saldu tailerrak-2024.	67	15.744,00
014-EKZ-2023	Exebarriko Udala	Rexcatering – Gure elikagaien kontsumo adimentsu baten alde.	60	5.973,87
015-EKZ-2023	Iurako Udala	Iuran hondakin gaikako bilketa hobetzen jarraitzeko neurriak ezartzea.	59	1.778,74
016-EKZ-2023	Artziniegako Udala	Artziniegako fibrozementuaren udal-inbentarioa.	67	28.500,00
017-EKZ-2023	Azpeitiako Udala	Azpeitian amiantoa duten instalazioen errolda egitea.	68	10.678,40
018-EKZ-2023	Lezako Udala	Lezako amiantoaren kudeaketa.	58	940,50
019-EKZ-2023	Txingudiko Zerbitzuak	Bidasoa 2030 -3. Zona.	69,5	13.573,62
020-EKZ-2023	Aiarako Kuadrilla	Garbigunea hobetzea, exeko zuntz-zementua biltzeko. Aiarako kuadrilla.	80,5	30.000,00
021-EKZ-2023	Aiarako Kuadrilla	Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko, Aiarako Kuadrillako ekonomia zirkularrerako.	61,5	29.600,00
022-EKZ-2023	Aiarako Kuadrilla	Aiarako Kuadrillako komunitateko konpostaje-eremuen sarea hobetzea eta handitzea.	68	30.000,00
023-EKZ-2023	Okondoko Udala	Fibrozementuaren udal-inbentarioa. Okondo.	67	28.500,00

2025eko urriaren 24a, ostirala

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Aitorrutako dirulaguntza (eurotan)
024-EKZ-2023	Okondoko Udala	Futbol-zelaiko aldagelen eraikinaren eraispen selektiboa. Okondo.	58	30.000,00
025-EKZ-2023	Legazpiko Udala	Legazpiko amiantodun instalazio eta kokalekuen errolda.	85	4.077,60
026-EKZ-2023	Aiarako Udala	Fibrezimentuaren inbentarioa handitu eta exekutatu. Aiarako Udala.	67	28.500,00
027-EKZ-2023	Oyoneko Udala	Oyón-Oiongo festetan eta ekitaldietan plastikozko edalontziak murrizteko neurriak.	58,5	4.870,57
028-EKZ-2023	Beasaingo udala	Amiantoa duten materialen identifikazioa eta inbentarioa egitea. Beasain.	62	11.960,00
029-EKZ-2023	Urkabustaizko Udala	Urkabustaizko jaietan berrerabiltzeko edalontziak eta platerak.	55,5	4.622,50
030-EKZ-2023	Gorbeialdeko kuadrilla	Gorbeialdeko Kuadrillako udalerrietako komunitateko konpostaje-eremuen jarraipena, kontrola eta mantentze-lanak egiteko proiektua.	71	30.000,00
031-EKZ-2023	Berangoko Udala	Amiantoa duten Berango udalerriko eraikinen errolda egiteko lanak.	80,5	9.587,40
032-EKZ-2023	Berangoko Udala	Zatiki organikoaren biketa ezartzeko proba pilotua, erabiltzailea identifikatuz.	84	18.243,32
033-EKZ-2023	Arrasateko Udala	Amiantoa duten aurretiazko elementu susmagarrien inbentarioa. Arrasate.	68	11.160,00
034-EKZ-2023	Basauriko Udala	Amiantoaren inbentarioa eta hura kentzeko ekintza-plana egitea, Hondakinei buruzko 7/2022 Legea betez. Basauri.	65	30.000,00
035-EKZ-2023	Ataungo Udala	Ataunen ekonomia zirkularreko etorkizuneko jarduketak diseinatzeke azterlana.	77,5	13.680,00
036-EKZ-2023	Ermuako Udala	Zuntz-zementuzko hornidura zaharreko hodiak kentzea, amiantoa kentzeko.	74	12.096,00
038-EKZ-2023	Debagoienako mankomunitatea	Debagoiena zirkularra.	76	18.800,00
039-EKZ-2023	Debako Udala	Debako Udalerriko amiantoaren inbentarioa eta plangintza.	68	7.505,00
040-EKZ-2023	Berantevillako Udala	Amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda, amiantoa kentzeko egutegia barne, Berantevillako udal-mugaratean.	77,5	11.860,75
041-EKZ-2023	Armiñongo Udala	Amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda, amiantoa kentzeko egutegia barne, Armiñongo udal-mugaratean.	77,5	5.415,00
042-EKZ-2023	Hernaniko Udala	Hernaniko komunitateko konpostaje-azteketa egitea eta instalazioak arloko eskakizun berrietara egokitzea.	77,5	30.000,00
044-EKZ-2023	Hernaniko Udala	Hernaniko saltokietan hondakinak sortzen ez dituen ordainketa-sistema ezartzea	67,5	30.000,00
045-EKZ-2023	Getxoko Udala	Ekonomia Zirkularren arloko jarduketak, 2023ko kanpaina.	74,5	30.000,00
046-EKZ-2023	Añanako Udala	Sortzaile handien komunitate-konpostajearen bideragarritasunaren azterketa teknikoa egiteko eta ekimenak abian jartzeko proposamena.	67	14.932,00
047-EKZ-2023	Astigarragako Udala	Astigarragan gaur egun funtzionatzen ari diren komunitateko konpostagailuak egokitzeko eta hobetzeko proiektua.	73,5	19.285,26
048-EKZ-2023	Tolosako Udala	Amiantodun zuntz-zementuzko estalkia ordeztzea Santa Luzia auzoko nekazaritza-erakina ordeztzeko exekuzio-proiektuan.	69	4.776,54
049-EKZ-2023	Astigarragako Udala	Astigarragan komunitateko konpostagailu-instalazio berriak ezartzeko bideragarritasun-azterlana.	64,5	5.680,00

2025eko urriaren 24a, ostirala

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Aitorrutako dirulaguntza (eurotan)
050-EKZ-2023	Orduñako Udala	Etxe kontziente eta aktiboen erronka klima-aldaketaren aurrean. Orduña.	58	28.500,00
051-EKZ-2023	Zaidibiako Udala	«Lurrak emana lurriari itzuli.» Zaidibia.	70,5	28.680,79
052-EKZ-2023	Mutiloako Udala	Lur lab Mutiloa.	64	30.000,00